

- Entzutekuak: Motoclub Plaentxi 12. urteurrenaren atarian
- Kultura: Plazatik Gaztetxera bertso txapelketako saioa maiatzaren 29an

soraluzeko  
hamabostekaria 199. alea  
2009ko maiatzaren 22an

# @ pil-pilean



**Ezina ekinez egina**

bagatuz aurten ere...

# euskal udalekuak

## Bernedo

### 1.txanda

Uztailaren 1etik 15era (15egun)  
1997 eta 1998an jaizak

### 2.txanda

Uztailaren 15etik 23ra (8egun)  
1999 eta 2000an jaizak

### 3.txanda

Uztailaren 23tik 31ra (8egun)  
1999 eta 2000an jaizak

### 4.txanda

Uztailaren 31tik Abuztuaren 8ra (8egun)  
2001 eta 2002an jaizak

### 5.txanda

Abuztuaren 8tik 23ra (15egun)  
1994, 1995 eta 1996an jaizak

## Goñi

### 1.txanda

Uztailaren 8tik 17ra (10egun)  
2001 eta 2002an jaizak

### 2.txanda

Uztailaren 17tik 30era (14egun)  
1997 eta 1998an jaizak

### 3.txanda

Uztailaren 30etik Abuztuaren 8ra (10egun)  
1999 eta 2000an jaizak

## Abaigar

### 1.txanda

Uztailaren 1etik 15era (15egun)  
1995 eta 1996an jaizak

### 2.txanda

Uztailaren 15etik 29ra (15egun)  
1992, 1993 eta 1994an jaizak



169 postakutxatila  
20.700 Zuzarraga

Tfnoa, eta faxoa:

943 724 628

Arrotsakidea Tetarik, Tetara

posta@euskaludalekuak.org

www.euskaludalekuak.org

euskaludalekuak



# Mundumira

munduko kulturen festa  
la fiesta de las culturas del mundo

MACACO (Catalunya)

17 HIPPIES (Alemania)

ROMINA GOSHTASBI (Iran)

KORRONTZI (EH)

ZURA (EH)

MLOMP (Senegal)

AMAMA LUISA BRASS BAND

ARTEA TEATRO (Aragoi)

MADERA DE CHORO (Brasil)

BLOQUE 53 (Venezuela)

CANDOMBE (Uruguay)

LA FANFARE P4 (Francia)

RUDE KANKA + IBAN NIKOLAI (EH)

NEILA BENBEY (Argelia)

DESCHAVE (Argentina)

maiatzak 22, 23, 24 mayo 09  
Eskoriatza - DEBAGOIENA

open boulder, senzala euskadi capoeira taldea, abentura,  
umeen jolasak, triki eskoriatzako musika eskola, azakak,  
mendi igoerak, diaporamak...

902 181 471  
www.mundumirafesta.com





GOTZON ELIZBURU



MAITE KINTANILLA

## ELKARTASUNIAN

**K**ontuz Maite!  
Suge mizto gaizto batzuk dabiz euren pozoina zantarki gure burmuinetan injektatzen. Egunkari espainol batian: *“Lanzan por internet un canal de TV 24 horas para enaltecer a ETA y reanimar a sus presos”*. apurtu.

org webguniak martxan jarritako Apurtu Telebistaz dabiz. Hurrengo egunian: *“Pirritx y Porrotx, estrellas de la televisión proetarra”*. Euskal Preso Politikuen senidiei elkartasuna adieraztiarren gehitxo ez? Egun berdian *“norbaittek”* apurtu.org-n zerbitzarixa saboteatu eta pikutara jun zan web orri hau. Albistegixetan entzun dozu zeoze? Eta zuek plazentziatarrok?

Oso erreza da. Zirkulo bat da. Gobernuak zer jan bihar dan esan eta sukalde tresnak jartzen dittue, hedabidiek osagaixak ematen dittue eta juez eta poliziek perrejilla ipinitta bukatzen dabe platera.

EITBra be bialdu dabe errezetia... Euren urak zabaldu dittue ona be eta errez egitten dabe igari sugiek.

Elkartasuna hitza prostituiduta daon garaixotan, batzuek ezin dogu halako ekintza “terroristarik” azaldu. Ispiluak bi alde dauzka eta alde bakarretik ikusten da beste aldia. Peiok 20 urte bete dittu mendeku kartzelan eta badia bi urte kondenia bete zebala. Beste hamar geratzen jakoz. Plaentxiako herrixak modu eredugarrixan erakutsi dotsa babesa. Nahiz eta bozgoragailuak itzali, herrixan dago oinarrixa. Ez dira hortaz konturatzen. Ez dabe konturatu nahi. Gaur, lotsa barik, ideien deslegitimaziñuaz eitten dozkue berba. Segi daigun gure herri hau eraikitzen elkartasunian. Animatzen zara Maite? ●

**A**nimau? Aix Gotzon! Erabaki bat hartu dot, nik uste, oin artian latzena, zailena eta batez be HAUNDIXENA!

Nik nere izatia prostituidukot, eta *“terrorista”* izatia alboratu!

Bai Gotzon, deslegitimizaziñua gailentzen dan garaixotan, euren pozoian murgilduko naiz, neuk be zuk aipatzen dozun sugien itxuria hartuz!

Bozgorailu hotz eta zantarretatik urtetzen diran soinu eta zaratek bere horretan jarraitu eta agindu bakoitza betetzera mugatuko naiz... Eta beraz mizto zitalez osatutako horrek nahi dutena izango naiz, soilik: SUMISO, AKRITIKO, KONFORMISTA, KONTSUMITZAILLE, PATRIARKATUAREN DEFENDATZAILLE SUTSU, DESARROLLISTA... eta beste hainbeste hitz eder.

Zirkuloko saltsan, sukalde tresna nahiz perejil artian, jainko bakarra izango da nere eredu: BILDURRA! Amen, berari!

Azken finian, naizena zapalduko dot indarrez ... Eta kontuz, zu! Onduan bazabiz, igual azpixin harra-pauko zaitut eta ...

Ahaztu Maite hemendik aurrerakuan... Malkuek eta irribarriek be hanka eitten dozte hau esan orduko, hutsik geratzen nabilela sentitzen dot, Gotzon. Halan da be, azkeneko osteratxua egingo dot SINEZKO ELKARTASUNIAN... Elgoibar aldian azkeneko hatsa hartuko dau nere izate *“terroristak”*... Egongo gara... ●

**Errez egitten dabe igari sugiek**

Gotzon Elizburu

**Euren pozoian murgilduko naiz**

Maite Kintanilla

Goguan hartzeko

**“Nahi izanez gero zinez, ezinik ez”**

Gotzon Garate



## GUTUNAK

**T**xurruka auzoko herritarrok gure desadostasuna azaldu nahi dugu gure auzoan egiten dharduten lanen inguruan. Izan ere, duela bi hilabete Txurruka baserri gaineko bidea eta behekoa asfaltatu egin zuten. Itxura dotorea eman zioten bidetari eta primeran laga zuten. Orain ordea, bes-

te lan batzuei ekin die. Zer egin nahian dabilzan galdetu diegu langileei eta ez digute ezer ere argitu. Udalak dituen asmoen berri jakin nahi dugu guztia berehala argitzeko.

**JOSE IGNACIO BERENITXAGA  
ETA TXURRUKA AUZOKO KALTETUAK**

### Fatxada garbiketen inguruan

**E**AJk badirudi ez duela Udal Talde honi oposizioa egiteko argudio sendo askorik fatxaden inguruko kontu hau behin eta berriz demagogia merkea eginez plazaratzen duenean.

Egia da diru gehiago gastatzen dela orain herria garbi mantentzeko, baina hau ez da pintada gehiago daudelako (aurreko legealdietan berdin edo gehiago zeuden), baizik eta maiztasun handiagoz garbitzen direlako. Adibide garbia da Frontoian zeuden pintadak garbitzen gastatu dela diru kopururik handiena, hainbat urtetan gero eta zikinago egoten utzi dena inolako jaramonik egin gabe.

Soraluzeko EA beti egon da herrian zehar panelak ipintzearen alde, bai lehen EAJri babesa ematen genion sasoiaren eta baita gaur egun ere. Ez zaigu oso zuzena iruditzen EAJ alderdiak, nagusia izan den 30 urteetan lortu ez duena, orain besteoi arrapaladan egiteko eskatzea. Dena den panel hauek jartzeko asmo tinkoa dugu eta hori horrela izateko ahalegin guztiak egingo ditugu.

Hori horrela izanik, EAJri eskatu nahi diogu herriko beste kontu batzutan ere arduraz eta modu eraikitzailean jokatzeko. Aurrekontuekin bi urtetan izan duen jarrera ez zaigu inola ere onargarria iruditzen, kontuan hartuta Soraluzeko EAk beste legegintzaldi batzutan aurrekontuak hainbat aldiz babestu dituela. Beste herri batzutan EAJ-k ez du horrela jokatzeko, adibidez ANV alkatetzan dagoen ondoko herrietan: Legazpin aurrekontuen aldeko botua eman du aurten EAJk; Arrasaten EAJren abstentzioak ahalbidetu du aurrekontua izatea; Antzuolan EAJko zinegotziak abstenitu egin ziren PSEekin batera; PSE izan da Eskoriatzan ere aurrekontuak onartzea posible egin duena abstentzioaren bitartez.

Gure herria ez dago denbora galtzen ibiltzeko egoeran eta guztiok aurrerantz bultzatzea beharrezkoa da, beti zangotrabatzen ibili gabe.

**SORALUZKO EA UDAL TALDEA**

### Peio etxeratu arte!

**E**skerrak eman nahi dizkiogu, maiatzaren 13an Udaletxean onartu zen Peio eta Euskal Preso Politikoen eskubideen aldeko mozioa babestu duten 600 plaentxiatarrei eta herriko 12 eragile eta alderdiei. Baina gogoratu Peioren askatasunaren

aldeko itzulia ez dela amaitu, Peio etxeratu arte etapaz etapa joan beharko gara eta denon artean lortuko dugu helmugara iristea!

**SORALUZKO AMNISTIAREN  
ALDEKO MUGIMENDUA**

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**pil-pilean**

**Argitaratzailea:** Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefona:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredaktoreak:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** Egoitz Unamuno, Enara Agirre, Jon Basauri eta Aitor Madrid **Publizitate:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZKO  
UDALA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA

## bittartetik



Ugaitz Catalan

## Zentzuna galdu dugu

Aste hauetan pasatu dugunaren inguruan buelta batzuk ematen hasi naiz eta gizarteangero eta okerrago gaudela iruditzen zait. Krisialdia gure inguruan igartzen hasi garen honetan, milaka eta milaka pertsona zorutzen hasi da, zer eta futbol partida bategaitik. Neuk be Athletic-ekirabaztea nahi nuen, nola ez, baina hortik ikusi ditugun kasuetara pausu handi bat dago. Bakoitzak nahi duena egiten du bere kontuekin, beraz, norberak ikusi dezala. Baina nire ustez, larregikoa izan da Valentzian ikusi duguna. Komunikabideetatik eman zaion tratua ere aztertzekoa da, zer izan da hau? Honek ez du izenik. Zentzuna galdu dugu. Hau, gizartearen erokeria azalean uzten duen kasu arrunt bat besterik ez da, ze beste notizia batzuk askoz ere lazgarriagoak dira, emakumearen aurkako indarkeria adibidez. Nola da posible gaur egunean horrelakoak pasatzea? Gure artean? Ez al ginen gizarte aurreratu bat? Ez dakit norantz goazen baina ez zait iruditzen hau aurrerapena denik. Zentzuna guztiz galdu dugu, inoiz izan badugu behintzat. Gauzak aldatu nahi baditugu, naturaltasun eta lasaitasun handiagoarekin bizitzen ahalegindu beharko dugu. Egia da hau zaila dela bizi dugun momentu honetan, baina zentzuna berreskuratzeak merezi du.

## ((ENTZUTEKUAK))

## Motoclub Plaentxi 12. urteurrena ospatuko du hilaren 22an (Itziar Alkorta)

## Oin dala zenbat sortu zenduen taldia?

Aurten 12 urte beteko dira herriko motorzale batzuk bildu eta Motoclub Plaentxi sortu gendula. Hasiera baten, oin dala 8 urte inguru, 22 lagunek osatzen genduan taldia baina oin momentuan 11 gara danataz ardurtzen garanak.

## Zegaittik sortu zenduen elkartia?

Batez be, motorzale pijuen irudixa kentziagaittik. Zaletasuna erakutsi eta herrixan motor girua sortzeko gogua geunkan eta aurrera egittia erabaki genduan!

## Zegaittik motorra?

Motorrian ibiltzia beste gauza bat da. Askatasun haundixa emoten dau eta motor gainian aske sentitzen zara. Gainera, zaliak garanok oso ondo konpontzengara elkarrekin etakanpoko lagun talde haundixa ezagutzeko aukeria emon dozku.

## Ze motor motatan ibiltzen zarie?

Guk Ondak eta Yamahak erabiltzen dittugu. 750 eta 1100 inguruko zilindradakuak.

## Bidaiek zelakuak izaten dira?

Motorrian leku asko ezagutzeko aukera izan dogu (*Asturias, Xerez, Madril, Orereta, Errioxa, Gasteiz, Montbello...*). Danetan bertako motorzaliekin batu eta inguruak ezagutu dittugu. Aitortu biharra daukagu baina, gehixen gustatzen jakuzen bidaiek bihurtuak dittue-



nak dirala eta Euskal Herrixan asko daukaguz!

Motoclub Plaentxi kideak Ezoi Bidean.

## Zela ospatu bihar dozue 12. urteurrena?

Bilbo, Arrasate, Bergara, Gasteiz eta inguruko motorzale asko batuko gara herrixan. 125 eta 130 lagun inguru. Gero, Sorluzetik hasi eta Eibar-Ermua-Zaldibar-Berriz-Markina-Ondorroa-Mutriku-Deba-Mendaro eta Elgoibartik pasatu ostian, baba-jana izango da eta opari banaketekin amaittuko da konzentrazinua.

## Zela ikusten dozuz gaur egungo segurtasun neurrixak?

Egixa esan, motorzale gehixenak errepide nazionalak erabiltzen dittugu eta errepidetako bazter-babesak oso arriskutsuak dira. Asko izan dira hil edo gorputzeko artikulazioaren bat moztu dabenak. Beste material batekuak izan biharko leukie. ●

**Motorzale pijuen irudixa kentziagaittik sortu genduan elkartia**

**IÑAKI IÑARRA**  
HARATEGI ETA URDATEGIA

Enkarguz eskatutako janaria ere prestatzen dugu

Kalebarren 29  
Sorluze  
T. 943 75 12 49

CERTICAR  
CASA DE VACUO CERTIFICADA

**HNOS. BENITO ANAIAK**

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak  
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47  
Santa Ana 26, 20590 SORLUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

# 250.000 euro Ezoziko futbol zelairako



Futbol zelaiari abenduan ateratako argazkia

**U**dalak Ezoziko futbol zelaia berrizteko 250.000 euroko diru laguntza jaso du dagoeneko, Foru Aldunditik, diru laguntza osoaren %60a. Proiektua moldatu ostean, ekainaren 3ko ple-

noan kreditu aldagarria onartu beharko da proiektuak aurrera egiteko. Laguntzarekin, belar artifizialdun zelaia, argiztapena, aldagela modularrak egin eta ura bertaratuko da. ●

## Patricia Borinaga Arriolaren idazkari



PSE-EEko zinegotzi Patricia Borinaga Iñaki Arriola Garraio Sailburua-ren idazkaria da duela astebetetik. Borinaga pozik azaldu da: "Aldaketa galanta izan da baina oso pozik nago, politikan lan egitea beti gustuko izan baitut".

## Bertako zuhaitzak landatuko dira Lixiba-errekan



Txondor plazetako bat

Soraluze Baso Bidez egitasmoaren barruan bertako landaredia sustatzeko zuhaitzak landatzen ari dira Lixiba-errekan (Atsedean Txaboleta inguruan). Aipatu zelaiak hektarea eta erdi dauka eta bertan hiru txondor plaza aurkitu dira. Ozuma Baso-lanak enpresa ari da lanean, udalak hala eskatuta.

## Soraluzeko bi lagun epaituko dituzte AHTren kontrako ekimenengatik

Aurreko zazpi soraluzetarren atzetik, beste bi soraluzetar epaituko dituzte datorren maiatzaren 25ean Bergaran. Arrasaten lurren desjabetzean egindako protestetan parte hartzea leporatzen zaie bi gazteei.

## Hainbat merkatarik egun erdiko greba egin zuten

Herriko hainbat merkatarik euskal sindikatuek deitutako greba orokorrarekin bat egin zuten. Eguerdiko 13:00ean dendak itxi eta Plaza Berrian 15 minutuko bilkura egin zuten. Grebak industria arloan izan zuen jarraipenaren daturik ez dugu. (Informazio gehiago Plaentxia.com-en).





### SAN ANDRES

ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46



### MENDIZABAL

okindegia

Kalebarren 10  
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6  
T. 943 75 13 99

**SORALUZE**

# 234 herritar eta hamar enpresa erregularizaziopean daude herrian

**Odola emateko aukera Itzaropena Jubiletxean**  
Gaur, hilak 22, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara odola emateko aukera egongo da Itzaropena Jubilatu Elkartearen.

**KZgunean ikastaro berriak ekainean**  
Ekainera begira ikastaro berriak antolatu dira KZ gunean. Blogger (2 o.), Google Tresnak (2 o.), Sare Sozialak (2 o.) eta Skype (2 o.) erabiltzen irakatsiko da. Hilaren Letik aurrera, 9:00etatik 13:00etara.

**Merkataritza eztabaidagai Debegesaren mahainguruan**



Atzo arratsaldean udaletxeko pleno aretoan, Debegesaren berrikuntza eta enpresa sailaren aurkezpena izan zen eta ondoren, "Soraluzeko merkataritza ekinean!" izeneko mahaingurua Debegesak antolatutako "Debabarrena ekinean!" ekimenaren barruan.



**E**usko Jaurlaritzako datuen arabera, urtarrila eta apirila bitartean 234 soraluzetarren kontratuak aldi baterako etena jasan dute. Horietatik, 208 gizonak dira eta 26 emakumeak. Bestalde, Soraluzeko hamar enpresa enplegua erregularizatzeko espe-

dientea zabaldu dute, apirilera bitartean. 2008an enpresa bat bakarrik zegoen enplegu erregularazioan eta hamar pertsonaren kontratuak aldi baterako etenda. Duela bi urte, enpresa bat bera ere ez zegoen erregularizazioan. ●

GOL-eko langileek otsailaren 2an egindako agerraldia.

Bizi-kale merkataritza elkarte partaideak

**ARRANO**  
tabernia  
etorri eta gozatu giro euskalduna eta sanua

**etxera**

Merkatu Plaza  
20590 Soraluze t. 943 75 24 40

Juan Mari arraindegia

**MAPFRE**  
SORALUZE ZERBITZUAK S.L.

Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Gabolatz, 5-8 Behea  
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)  
e-mail: jibarza@inlonegocio.com

Tlf: 943 75 16 58 - 943 75 30 12  
Mugikorra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78  
FAX: 943 75 16 10

**Aaras**

DIN arauak jarraituz eta zehaztasun handiz egindako torniluak

T. 943 75 17 36 / 18 03  
F. 943 75 22 95

Industrialdea 20 - 21  
50 Posta Kutxatila  
20590 Soraluze

*“Denboraldia latzagoa izan da zelaitik kanpo zelaian bertan baino”*



## Ezina, ekinez egina

Azken urtean kontu asko entzun dugu Sorako nesken inguruan. Urtebeteen taldea sortu eta denboraldi txukuna egin dute, finalera ere iritsiz.

### DENBORALDIKO DATUAK

Partidua	
kopurua .....	29
Galdu.....	3
Berdindu.....	2
Irabazi.....	24

**A**spaldikoa da nesken futbol talde bat osatzeko nahia eta gogoia. Orain arte, herrian aukerarik ez zegoenez jokalaria guztiak beste futbol talde batzuetan jokatu behar izan dute. Baina aurtengo denboraldian faktore askok bat egin dute ametsa egia bihurtzeraino: *“Jendea mugitu egin da. Alberto Berraondo eta Jesus Juan Benitori esker dirua bildu eta ekipazioa lortu dugu eta honek guztiak taldea osatzea posible egin du”* diote Sorako jokalariek. Hortik aurrera, zelaira jauzi egitea baino ez zaie falta izan eta ezin esan trakets ibili direnik. Denboraldi ezin txukunagoa egin dute hogeitik gora partidu jokatuz, hiru galdu, bi berdindu eta gainontze-koak irabaziz. Ez dago txarto. *“Zelan irabazi dogu? Hain azkar pasatu da!”* ezin sinistuta daude oraindik.

*“Kopan Mondraren aurka galdu izan-nak amorru handia ematen du”*

### Herritarren berotasuna

Urte gogorra izan da neskendako: *“Denboraldia latzagoa izan da zelaitik kanpo zelaian bertan baino. Oztopo asko izan ditugun arren, zorionez, herritarrek oso gertu sentitu ditugu hasieratik eta hori eskertu nahi dugu”* dio Lorea de Castrok jokalaria. Gogoratzen du, partidu bakoitzean batzen zen jende pila: *“Jende pilo bat etorri da gure partiduetara, mutilen neurketetara joaten zena baino gehiago”*.

### Ezoziko futbol zelaiaren etorkizunaz

Zaharberritze lanak noiz hasi zain daude Soraluzeko futbolariak: *“urteak daramatzate zelai honen inguruan bertan eta ez dira ados ipintzen. Neguan lokatza, zauriak... managerarekin garbitzen dugu erroa,*



**“Sendagileek segituan igartzen dute Ezozitik zatozela”**

askoz errezago da-eta zikina kentzea”. Txarrena, beraien ustez, orkatilek eta belaunek sufritu egiten dutela da:

“Hanketako minarekin sendagilearengana joanda, segituan igartzen dute Ezozitik zatozela”. Hala ere, nahiz desastre bat eginda dagoen kariñoa ere hartu diote. Gainera, herrikoen alde ere egiten du zelaiak: “Gipuzkoan Antzuolakoa eta Soralezekoa dira baldintza hauetan dauden zelai bakarrak eta kanpokoan aurrean abantailaz jokatzen dugu. Hori bai, alderantzizko kasua ere gertatzen da, belar artifizialdun zelaiak oso handiak dira guretako, galdu egiten gara”.

**Mondra, arerio indartsua**

Asko izan dira maila handia erakutsi duten aurkariak, buruan Mondra, Aierru, Lagun Onak eta Mutriku dituzte: “Oso aurkari gogorrak izan dira guretzat. Gainera, Ligan Mondrari bi bider irabazi diogu eta Kopan beraien aurka galdu izanak amorru handia ematen du”. Iñaki Arrilaga entrenatzailearen hitzetan, taldeak maila oso ona erakutsi du eta oso pozik dago emaitzarekin. Taldekide gehienek futboleko jolasten jarraitzea dute helburu. Tamalez, batzuk taldea utzi baino beste aukerarik ez dute, ikasketak direla-eta kanpora baitoaz. Horregatik, datorren urtera begira jendea animatu nahi dute Sora neska taldera, aurten lortutakoa urtebeteko loraldia besterik izan ez dadin. ●



GARAZI SORAKO KAPITAINA	
Futbolaria ez bazina?	Dantzaria
Nun jokatuko zenuke?	Realean
Partidu bat?	Aierrun kontrakoa
Parrandarako leku bat?	Edozein da ona konpainia ona eta gogoaz
Pelikula bat?	La vida es bella
Mendia ala itsasoa?	Itsasoa ikusten dan mendia

Mondraren kontra Bergaran jokatutako finala galdu osteko argazkia.



# ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Motorzaleen errepideetako segurtasuna urteroko eztabaida izaten da. Iaz, urtarrietik maiatzera bitartean, 119 motorzale hil ziren Espainiako errepideetan.

## Motorzaliak nahikua babestuta darella uste dozu?

**BELEN CALLEJA**  
Langabetua



**N**ik ezta kint asko honi buruz baina entzun dot errepidiak oso arriskutsuak dirala euredako. Uste dot onena ertzetako babesak goititik beherakuak ipintzia izango litzakela.

**RAMON BARRENETXEA**  
Jubilaua



**E**z dare ondo babestuta. Bidiak ez dare motorzaliendako bihar dan moduan ipinitta. Ertzak, zoru labanak, lurreko zuluak... horrek danak konpondu biharko lirake motorzaliak arriskurik barik bidian ibiltzeko.

**IRUNE TORRIENTES**  
Bihargina



**B**ide batzuk oso txarto zainduta dare eta horretxek hobetu bihar dira. Baina motorzaliak eurak be, euren aldetik ipini bihar dabe. Batzuk zoruan pare ibiltzen dira karreteran eta bi aldien partetik aldaketa bihar da.

**IÑAKI GABILONDO**  
Elektrizista



**N**i neu motorzalia naiz eta esan neike ez daukagula babes nahikorik. Batxiak, "korkatuellusak" ...hamaika etsai dare karreteran eta horrek danak hobetzia biharrezkua da gure seguridaderako. Dana dala, gutako asko sosisuzago ibiltzia be komeni da.

*Herrixa harro dago bere taldiarekin.*

*...herriko koloreak darioiezalako.*

*...gainera, euredako zailago izaten da beti.*

*Guretako txapelkunak dira.*

KOMIKIXA



**Ion Murgizu Pinturak**

MARGOKETA OROKORREAN

Empapelatuak

Estukoak

Fatxadak

Eskilarak eta patioak

Pintura industrialak

T. 943 75 1324 M. 652 777 030

Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Javier Alonso Zelaeta  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K.Z. 20.000.434

Jon Azkiorbeberia Txurruka  
K.Z. 20.000.752

**HORTZ KLINIKA**

Errabal 1 - Barrenekoa 2

T. 943 75 16 13

### XXXIX. Haurren Euskal Jai maiatzaren 31an



Egun guztiko egitaraua antolatu dute Euskal Jai Batzordeko kideek. Goizeko 10:30etan talde gonbidatuei ongi etorria frontoian, hamarretako eta guzti. 11:30etan dantzari eta txistulariekin kalejira herrian zehar eta 12:30etan Alardea Plaza Zaharreen. 13:30etan dantzariak etxeetara banatuko dira bazkaltzeko eta 14:00etan txistulari eta arduradunen kalejira-poteoa herriko trikitilariarekin. Amaitzeko, 17:00etan Alardea egingo da Plaza Zaharreen eta ondoren, buruhandiak izango dira.

#### Abian da Plazatik Gaztetxera bertso txapelketaren 8. edizioa

Maiatzaren 29an ospatuko da Sorluzen Plazatik Gaztetxera bertso txapelketako lehenengo kanporaketa. Afarria 20:30etan izando da eta bertso saioa 22:00etan. Guztira, 6 bertsolari arituko dira (Eneko Beretxinaga, Hodei Irurogetagoiena, Mikel Olaizola, Maialen Belarde, Peru Vidal eta Egoitz Alkorta). Hurrengo kanporaketa Elgoibarren izango da maiatzaren 30ean, Deban ekainaren 5ean eta Mendaron ekainaren 12an.

#### Herriko 68 ikasle bertsolaritza lantzen

Maiatzaren 28an Plaentxi ikastetxe-ko 68 ikaslek bertso saioa eskainiko dute herriko frontoian, 17.30etan hasita.

## Jardunaldi antidesarrollistak



Kontzejupean egindako bideo emanaldia.

Ekitaldiz betetako jardunaldiak datozen egunetan jarraituko dute. ●

### EGITARAUA:

- Gaur gauean antzerkia: "Nire aitaren AHTa defendatuko dut"
- Domekan: goizeko bederatzi-tan irteera egingo da Mutrikura, Sasiola-Kalbarixon martxan dauden lanak ezagutzera.
- Astelehena 25: "La historia de las cosas" bideo emanaldia
- Eguena 28, hitzaldia: "Transformación urbana de Eibar; de ciudad industrial a centro comercial abierto" Emilio Aiastuin eskutik.
- Zapatua 30, AHT EZ EGUNA: 11:00etan hasi eta egun guztian zehar antzerkia, triki-pegada-poteoa, bazkaria, eta amaitzeko kontzertuak Kalaña, la araña esponjiforme eta KKK taldeen eskutik izango da.



#### Musika tailerra herriko haurrentzat

Pasa den astean, herriko Musika Eskolak ekitaldi batzuk egin zituen. Ipuin musikatu bat irakurri zuten esaterako eta 150 ume inguruk hartu zuten parte. Musika Eskolako 2010eko matrikulazio epea ere zabaldu dute, maiatzaren 13tik ekainaren 22ra bitartean.

**GILA TABERNA**  
GOIZEKO 6:30ETATIK AURRERA ZABALIK  
**GOSARIAK  
ETA PINTXO  
GOXO GOXUAK**  
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

**KM**  
*Desing*  
Discinua eta Sormena  
Poligono Amillaga, nº 5  
Tlf.: 943 76 99 85  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

## Sorako mutilen erregional taldeak mailaz zuzenean igotzeko aukera du

Pasa dan jardunaldian Amaro z taldearen kontra berdinketa lortu ostean, Sorako mutilen erregional taldea Usurbilgo taldearen kontra lehiatuko da zapatuan. Irabazi ezker, eta Amara Berri taldeak galdu, lehenengo erregional mailara zuzenean igoko da.

Amara Berri taldeak berriz, irabazi edo berdintzea lortzen badu, Sorako mutilen erregional taldea promozioan egotera pasatuko da. Sorako Jubenil taldeak sailkapeneko 7. postuan 9 punturekin itxi du denboraldia eta Kadeteak 5.nak geratu dira 19 punturekin.



## Gimnasia erritmikoko erakustaldia kiroldegian:

Domeka honetan, hilak 24, gimnasia erritmikoko erakustaldia egongo da kiroldegian. Herriko kirolariez gain, Eibarko, Urretxuko, Marki-

nako eta Mutrikuko gimnastak ere arituko dira. Erakustaldian guztira, 150 haur inguruk hartuko dute parte.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Sora(Erreg.N.) - Mondra ..... 1-2  
Sora(Erreg.M.) - Landetxa..... 3-0  
Mutriku - Sora(Kad) ..... 4-0  
Sora(Erreg.M.) - Amaro..... 1-1

### PELOTA

Gonzalez - Laskurain..... 17  
Xala - Zubieta..... 22

## AGENDA

### FUTBOLA

**Zapatua 23, 17:30etan Haranen**

Sora (Erreg.M) - Usurbil

**Zapatua 23, 12:00etan Zarautzen**

Soraluze DBHkoen Futbol 8ko Gipuzkoako Txapelduen faseko finala:  
Soraluze - Santa Teresa

### FUTBITO TXAPELKETA MARTXAN

Ekainaren 5a eta uztailak 3ra bitartean herriko hamabi talde lehiatuko dira kiroldegian. Hala dok-Apple River izango dira neurtzen lehenak.

### PELOTA

**Bermeon, maiatzaren 22an 22:15etan**

Berasaluze VIII - Begino

Gonzalez - Laskurain

### Mendi taldea Adarran

Hilaren 10ean, 47 lagun inguru bildu ziren Adarrara mendi irteera egiteko. Hasieran eguna eguraldi tristearekin hasi zuten arren, eguerdirako giro ederra izan zuten lagun. Domeka honetan Kalamuara joango dira eta ekainaren 7an Pagoetara.



Iturria: Niko Mendia

**MARI MAR HARATEGIA**  
Gurean Euskal Herriko produktuak!  
Tel. 934 75 24 02  
Santa Ana kalea, 4 Soraluze


**PASCUAL CHURRUGA, s.a.**  
Hotzian eta beruan jotako tornilluak  
Errekalde 21 20590 SORALUZE  
T. 943 75 00 06  
T. 943 75 16 00  
F. 943 75 24 61

**MARE ILEAPAINDEGIA**  
**ESTETIKA SOLARIUM**  
Errebal kalea 1, behea  
Tel.: 943 75 14 89  
20590 SORALUZE

**GAZTELUPE taberna**  
tel: 943 75 20 81



# ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Roman Olaizola

## HARLEY-DAVIDSONA HERRIRA

Vicente Olaizolak ekarritako Harley-Davidson markako motorra bere sidecar eta guzti. Motorrean ageri dira, Vicente Olaizola eta Irene Maiztegi euren seme-alabak ondoan dituztela, Ignacio Olaizola, Juanita Olaizola eta Miguel Olaizola. 1925. urte inguruko argazkixa da.



### PEDRO LASKURAIN LIZARRALDE

APIRILAREN 11N HIL ZEN 97 URTE ZITUELA

Aita aitona edo senarra gizon jator ta leiala, zeureak maitez egin zenduen bizitzako eginala, urte luzetan dastatu dugun aitonabaten magala, ondo dakigu joan zinaretik egunak pasa dirala, baina oraindik ere Osuman bizirik dago itzala!  
**Osumako senittartekuak.**



### MARIAN BEGIL

HIRUGARREN URTEURRENA

Hiru urte dira joan zinela, baina egu-nero zaude gure oroimenean.

# GOGORTUZ Fisioterapia Zentrua



Oier Oregi Unamuno  
Santa Ana 7  
Tel. 943750022



**Lepoko minak  
Erreuma  
Erreabilitazioa  
Kirol osteko errekupezioa  
Tendinitisak  
Zaintiratuak**

Ordutegia:  
8:00etatik 21:00etara (oin ez dabe ixten)



## Fresatzeko Teknologia



Mahai Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua  
Mahai Finkoarekin



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



SORALUCE, S.Coop.  
Osintxu Auzoa  
E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Tel. +34 943 76 90 76  
Fax. +34 943 76 51 28  
E-mail: [soraluce@soraluce.com](mailto:soraluce@soraluce.com)  
[www.soraluce.com](http://www.soraluce.com)



# MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

maiatzak 13-tik ekainak 22-ra

## ■ MUSIKA TAILERRA

4, 5 eta 6 urtekoentzat

## ■ INSTRUMENTUA ETA HIZKUNTZA MUSIKALA

7 urtetik aurrera

- Klarineta
- Txistua
- Flauta
- Trikitixa
- Tronpeta
- Biolina
- Soinua
- Saxofoia
- Tronboia
- Pianoa
- Gitarra
- Panderoa

## ■ MUSIKA MODERNOA

14 urtetik aurrera

- Bateria
- Baxu elektrikoa
- Gitarra elektrikoa
- Hizkuntza musikala helduentzat



**zatoz SORALUZE MUSIKA ESKOLARA**  
**eta informa zaitez!!**

Idazkaritza / Secretaria  
astelehenetik - ostiralera / de lunes a jueves  
15:30etatik - 19:30etara

Frontoian gaude:  
telf. 943 75 15 44

e-posta: [soraluze@musika.e.telefonica.net](mailto:soraluze@musika.e.telefonica.net)



## Haurren Euskal Jaiak

**DANTZARI GAZTEAK ETXEAN HARTZEKO GERTU DAUDEN PERTSONAK BEHAR DIRA**

Maiatzaren 31, domekia

Izena emateko:

Pil-pileanera deituta

(943 75 13 04)

edo **Iratxo Goxodendan.**

Ekintza honekin gure bailaran euskal dantzak indartu eta garatzeko laguntza ematen diharduzu.

Eskerrik asko dantzazale!

